

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

# 4863

*EBAZPENA, 2018ko irailaren 26koa, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiarena, garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» sariaren deialdia egiten duena 2018rako.*

Azaroaren 18ko 189/2008 Dekretuaren bitartez arautzen da «Ignacio Ellacuría» saria, eta helburua da Euskadiko eta Euskaditik kanpoko erakundeez, kolektiboez eta gizabanakoez herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko eta pobrezia ezabatzeko borrokan egindako ekarpena aitortzea, euskal gizartea eta nazioartekoa sentsibilizatze aldera.

Dekretu horren 3. artikuluan ezartzen denez, saria urtero deituko da garapenerako lankidetzaren arloko sailburu eskudunaren agindu bidez, eta aginduan edizio bakoitzaren aldi baterako oinarri espezifikoak zehaztuko dira. Bestalde, dekretuaren 5. artikulua xedatzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko duela saria.

Deialdia egiteko eskumenari dagokionez, eta kontuan izanik zer dioten, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, eta bestetik, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuak, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusia da deialdi hau egiteko organo eskuduna.

Saria emateko kudeaketei eta horretarako eman beharreko ebazpenei dagokienez, berriz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak izango du eskumena, hala xedatuta baitago, batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 4.b) artikuluan, eta, bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 5.b) artikuluan.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 10.b) artikuluan ematen zaizkion eskumenez baliaturik, 2018ko otsailaren 14ko bileran, erabaki eta proposatu zuen diru-laguntzerako deialdia eta diru-laguntzak emateko oinarritzko irizpideak onartzea.

Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» sariaren 2018ko deialdia egitea, onartu diren eta I. eranskinean agertzen diren oinarriei jarraituz.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan aurreikusi gabeko guztirako, arau hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;

2018ko urriaren 5a, ostirala

1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; eta 189/2008 Dekretua, azaroaren 28koa, garapen-lankidetzarako «Ignacio Ellacuría» saria sortu eta arautzen duena; bai eta 38/2003 Lege Orokorra ere, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzkoa.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 26a.

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusia,  
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.

## I. ERANSKINA

## GARAPENERAKO LANKIDETZAREN «IGNACIO ELLACURÍA» SARIAREN 2018KO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» sariaren deialdia egitea; sari honen helburua da Euskadiko eta Euskaditik kanpoko erakundeek, kolektiboek eta gizabanakoek herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko eta pobrezia ezabatzeko borrokan egindako ekarpena aitortzea eta behar den hedapena ematea, euskal gizartea sentsibilizatzeko aldera.

Bigarrena.– Sariaren ezaugarriak.

Saritzat oroigarritzko artelan bat eta 15.500 euroko zenbateko gordina emango dira. Diru-zenbateko horrek dagokion atxikipen fiskala izango du.

Hirugarrena.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Hautagaitzak aurkeztu nahi dituzten pertsona juridikoek bitarteko elektronikoen bidez kontsultatu eta egin beharko dituzte prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Hautagaitzak aurkezteko moduari buruzko xehetasunak euskadi.eus-eko egoitza elektronikoko honetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus> edo <http://www.elankidetza.euskadi.eus> webguneko deialdien atalean.

3.– Eskabidearen osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Laugarrena.– Hautagaitzak aurkezteko epea eta modua.

1.– Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2.– Hautagaitzak euskadi.eus egoitza elektronikoen bidez aurkeztuko dira.

Bosgarrena.– Hautagaitzak eta eskatzen den dokumentazioa.

1.– Hautagaitza eskabide-orri normalizatuan bete beharko da, behar bezala eta osorik, zeina euskadi.eus egoitza elektronikokoan eskuragarri baitago.

2.– Hautagaitza horrekin batera, hauek aurkeztu behar dira:

a) Legezko ordezkariak egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere eskaera sinatzen duen pertsona Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatuta ez badago erakunde eskatzailearen ordezkari gisa, eta egiaztapen hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian agertzen ez bada (eskuragarri helbide hauetan: <https://euskadi.eus> edo [www.elankidetza.euskadi.eus](http://www.elankidetza.euskadi.eus)).

b) Baimena, saria ematen duen erakundeak zuzenean egiazta dezan hautagai diren erakunde edo pertsona fisikoek honako hauetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztela (zerga-bete-beharrei eta Gizarte Segurantzarekiko buruzkoak): 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikulua, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra. Erakunde eskatzaileak berariaz ukatzen badu baimen hori, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, aipatutako errege dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

3.– Erantzukizunpeko adierazpena berariaz jasoko du ezingo direla sariaren onuradun izan Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluan aurreikusitako inguruabarretako batean dauden erakunde eskatzaileak.

Seigarrena.– Epaimahaia.

Hautagaiak aztertzeko epaimahai bat eratuko da. Honako hauek izango dira epaimahai horretako kideak:

– Lehendakaria: Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko burua: Ana Oregi Bastarrika.

- Bokalak.

- Eusko Jaurlaritzaren eta beste euskal erakunde batzuen ordezkariak: Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Monika Hernando Porres, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, Miren Izaskun Landaida Larizgoitia.

- Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Euskadiko Koordinakundearen lehendakaria: Sofia Marroquín Guerrero.

- Lankidetzaren eta garapenaren alorrean izen handia duen pertsona bat: Jose Angel Cuerda Montoya, 2016ko deialdian Ellacuría saria jaso zuena.

– Idazkaria: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa, Ana Rojo González.

Epaimahai horrek, deialdi honetan jasotako irizpideak kontuan hartuta, Agentziako Zuzendari-tzari bidaliko dio dagokion ebazpen-proposamena.

Zazpigarrena.– Saria ematea.

Saria Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak xede horretarako antolatutako ekitaldi batean emango emango da, 2018ko abenduaren 10ean, Lehendakaritzaren egoitzan, Vitoria-Gasteizen.